

## “UDAL LOKALAK LAGATZEKO ETA ERABILTZEKO UDAL ERREGELAMENDUA”

### ZIOEN AZALPENA

Toki entitateen ondarea eraginkortasun eta errentabilitate printzipioen arabera kudeatzea, toki entitateen ondasunen gaineko legerian jasotzen den arduetako bat da. Udalen lana da, herritarrekiko administrazio publiko hurbilena diren heinean, beraien baliabideak eta ondasunak herritarren eskura jartzea, modu koordinatuan, elkarre sarea sortzen laguntzeko, eta helburua herritarren hainbat alderdi garatzea izanik: elkartasuna, gizarte arloa, kultura, kirola edo interes orokorreko beste edozein.

Aipatutako arrazoiengatik, Eskoriatzako Udalak udal jabegoko lokalak laga izan ditu irabazi asmorik gabeko elkarteei zein pertsona fisiko eta juridikoei, beraien funtzioak garatzera eta beraien helburuak lortzera zuzendutako ekintzak eta gizartearen intereseko ekintzak egiteko.

Hala ere, lokal horiek erabiltzeko araurik ez egoteak antolaketa arazoren bat sor dezakeenez, beharrezkoa ikusten da udal lokalen erabilera arautzeko erregelamendu bat egin eta onartzea.

Beraz, araudi honek bi helburu ditu. Lehenengoa, udal lokalak erabili ahal izateko prozedurak baldintza berak izatea guztientzat, lokalen erabilerak gizarteari eman diezaiokeen onura handienari lehentasuna emanez; eta bigarrena, lokal horien erabilera eta funtzionamendua arautzea.

Arau hauek jasotzeko erregelamendu hau onartzen da, Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua toki entitateei erregelamenduak egiteko eta beren buruak antolatzeako aitortutako ahalmenak erabiliz.

### **1. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. ARTIKULUA. HELBURUA**

Erregelamendu honen helburua da Udal honen jabegoko udal lokalen erabilera lagatzeko beharrezko prozedura eta lagapen-hartzaileek lokalei eman beharreko erabilera arautzea.

Erregelamendu honetatik kanpo gelditzen da lokalak beste administrazio publikoei eta beraien menpeko erakundeei lagatzea.

#### **2. ARTIKULUA. LAGAPENAREN HELBURUAK**

Erregelamendu honetan araututako lagapenak eta erabilpenak ondorengo helburuak lortzera bideratuta egon beharko dira:

- Leku komunitarioen eta topaguneen erabilera partekatua sustatzera Eskoriatzako herritarren, elkarteen, taldeen eta gainontzeko eragileen artean.
- Elkarteek edo taldeek antolatutako programa eta jarduera kulturalak, informatiboak, hezigarriak, hezkuntzakoak eta ludikoak martxan jartzea erraztera.
- Lagapen horiek egiteko erabilgarri dauden udal baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzera. Lokalen erabilera Udalak eta elkarteek partekatzeak udal baliabide erabilgarriei ahalik eta etekin handiena ateratzea ekarriko du.

### **3. ARTIKULUA. ONURADUNAK**

Herriko bizitzarekin zerikusia duten jarduerak egiteko lokala behar duten pertsona fisikoei eta juridikoei zein elkarteei edota taldeei laga ahal izango zaizkie lokalak.

Ezingo da lokalik laga irabazteko asmorik duten elkarteei. Irabazteko asmorik duten elkarteek aretoak alokatu ahal izango dituzte ordenantza fiskaletan jasotako prezioa ordainduta.

Irabazi asmorik gabeko elkartetzat joko dira horrela jasota dutenak beraien estatutuetan eta inolako jarduera ekonomikorik egiten ez dutenak, eta eginez gero, horrekin lortutako irabaziak beraien estatutuetan jasotako interes orokorreko helburak betetzeko bakarrik erabiltzen dituztenak, elkartekideei edo hirugarrenei irabazi zuzenak banatu gabe.

### **4. ARTIKULUA. BAIMENDUTAKO JARDUERAK**

4.1.- Lokalen erabilpena, nagusiki, jarduera kulturalak, artistikoak, hezkuntzakoak, soziokulturalak eta ludikoak egiteko lagako da, betiere, helburu komertzialik edota irabazi asmorik gabe. Hauek dira jarduera horiek:

- Antzerki edo dantza emanaldiak.
- Kontzertuak, entzunaldiak.
- Ikus-entzunezkoen emanaldiak.
- Ikastaroak, tailerrak, seminarioak.
- Hitzaldiak, biltzarrak.
- Bilerak.
- Erakusketak.
- Aurkezpenak
- Ekitaldi politikoak.
- Entseguak

4.2.- Lokalaren erabileren artean horrela jasota egonez gero, honako hauek ere baimenduko dira:

- Ezkontza zibilak (Ibarraundi museoan).
- Hileta zibilak (Ibarraundi museoan).
- Antzeko izaerako ekitaldiak.

4.3.- Lokal bakoitzean egin daitezkeen jarduerak dagokion batzorde informatzaileak onartuko ditu aldez aurretik.

4.4.- Lagapena jasotzen duten elkarteek edo taldeek Udalak hizkuntza normalkuntzarako ezarritakoa betetzeko konpromisoa hartzen dute, eta beraz, beraien jardueraren ondorioz ateratzen dituzten dokumentu edo idazki guztietan (kartelak, oharrak, iragarkiak, programak, liburuxkak...), eta baita ekintza publiko edo jardueretan ere, lehenetsuna eman beharko diote euskarari. Euskarazko testuen zuzentasuna bermatzeko, Udaleko euskara zerbitzura jo ahal izango dute argitaratu beharreko edozein testu itzuli edo zuzentzeko.

4.5.- Hemezortzi urtetik beherakoei zuzendutako jarduerak euskara hutsez izan beharko dira, justifikatutako salbuespenak salbuespen.

## **5. ARTIKULUA. HELBURU KOMERTZIALAK EDO IRABAZI ASMOA DUTEN JARDUERAK**

Udalak eskubidea izango du lokalen erabilera helburu komertzialetarako edota irabaziak lortzeko lagatzeko, betiere, lagapen-hartzailea irabazi asmorik gabeko taldea edota elkarte baldin bada, talde edota elkartearen helburuarekin lotutako jarduerak baldin badira, eta taldearen edota elkartearen helburuekin eta izaerarekin zerikusirik ez duten jarduerak ezkututzen ez badituzte. Horrelakoetan, lagapena aldi baterako izango da.

## **6. ARTIKULUA. LAGAPEN MOTAK**

Udalak hainbat modutara laga ahal izango ditu lokalak:

**Lagapen zehatza:** Erabilera edo egun bakarrerako lagapen zehatza, esate baterako, bilerak, hitzaldiak...

**Aldi baterako lagapena:** udal lokal bat hainbat emanaldi zehatzetarako lagatzea. Lagapenaren denbora osoa, balizko luzapenak barne, urtebete baino gutxiagorako izango da.

**Denbora baterako lagapena:** udal lokal baten erabilera alde biek hitzartutako denbora baterako (urtebeterako edo gehiagorako) lagatzea .

## **7. ARTIKULUA. LAGAPENAREN IZAERA**

7.1.- Lagapenaren egunean indarreango ordenantza fiskalak ezarritakoaren kaltetan gabe, lagapenak doan eta prekarioan izango dira helburua ondorengo jarduerak egitea denean:

7.1.1) Eskoriatzako Udalak edo Udalarekin elkarlanean antolatutakoak.

7.1.2) Partikularrek edo kultur, hezkuntza, kirol, gizarte edo aisialdi elkarteek antolatutakoak, beti ere, egin beharreko jardueretan parte hartzeko ez baldin

bada dirurik kobratzen. Jarduera irabazi asmorik gabe egiten dela Eskoriatzako Udalak aitortu beharko dio jarduera bakoitzari.

7.1.3) Udalak erabakitakoak talde artistikoek edo sozialek emandako kultura kontraprestazioen truke.

7.1.4) Sarrera edo izen ematea kobratu ez eta helburutzat salmenta ez duten jarduerak.

7.1.5) Interesdunak hala eskaturik, eta Kultura batzorde informatzaileak uste badu lokalean egin beharreko jarduera gizartearen intereserako edo herri-onurarako dela, eta horrela proposatu, Alkateak bermea jarri edo ordaintzetik salbuetsi dezake interesduna.

**7.2.-** Lagapenaren egunean indarreango ordenantza fiskalak ezarritakoaren kaltetan gabe, lagapenak kostua izango du, hau da, kontraprestazio ekonomikoa edo soziala, honako kasu honetan:

Legez eraturako talde eta elkarteei edo pertsona juridikoei lokalak lagatzea jarduerak egiteko, jarduera horietan parte hartzeko izena ematea edo kuotak kobratu behar badira edota jarduerak irabaziak lortzeko baldin badira. Tasa kobratuko da lokaleko argi, berogailu eta garbitasun gastuak ordaintzeko.

Kontraprestazio ekonomiko edo soziala lagapenaren unean zehaztuko da, baina, gutxi gorabehera, hauek izango dira lokalak lagatzearen kobratuko diren tasak:

Udal pilotalekuko (gimnasioa barne), Kultur Etxeko eta Ibarraundi museoko aretoak

- 1 ordu astean: 20 € hileko
- 2 ordu astean: 40 € hileko

## **8. ARTIKULUA. ORGANU ERABAKITZAILEAK**

Baimenak emateari eta lokalak lagatzeari buruzko gainontzeko kontuak Kultura batzorde informatzaileak kudeatuko ditu eta Alkateak edo horrek eskuordetutako zinegotziak erabakiko ditu, Udalbatzarraren eskumeneko gaietan izan ezik.

Egun natural baten barruan egiteko diren jardueretarako lagapen zehatzetan, eskaera egiterakoan esango da aretoa erabilgarri dagoen ala ez.

## **9. ARTIKULUA. LAGAPEN ETA ERABILPEN IRIZPIDEAK**

**9.1.-** Erakundeei edo partikularrei baimena eman baino lehen, lehentasuna izango dute beti Eskoriatzako Udalak antolatutako edo babestutako jarduerak.

**9.2.-** Elkarte edo taldeei gelak edo aretoak lagatzerakoan lehentasuna izango dute Eskoriatzan egoitza duten eta antolatuta dauden talde eta kolektiboek.

**9.3.-** Lokalak lagatzeko eta erabiltzeko irizpideak honako hauek izango dira:

Eskatzaile bakoitzari zein lokal laga erabakitzeke honako hauek izango dira kontuan: dauden beharrak, libre dauden gelak eta aretoak eta egin beharreko jarduera mota eta berorren ezaugarriak.

Halaber, lokalak baino eskaera handiagoa egongo balitz, horien erabilera lagatzeko alderdi hauek izango dira kontuan: lehentasuna izango dute Eskoriatzan eroldatutako kide gehien duten taldeek; era berean, lehentasuna izango dute eta baloratuko da kultur ekitaldiak edota ekintzak antolatzea edo horrelakoetan parte hartzea, hau da, nolabait herriari bueltatzea lokala lagatuko denboran egindako kultur jarduera.

## **2. TITULUA. LAGAPEN ZEHATZA ETA ALDI BATERAKOA**

### **10. ARTIKULUA. PROZEDURA ETA ERABAKIA**

**10.1.-** Lagapen zehatzak, egun natural baterako edo gutxiagorakoak, Udaletxeko Erregistro Orokorrean edo dagokion eraikinean (kultur Etxean edo Ibarraundi museoan) eskatu beharko dira idatziz. Lokala erabilgarri dagoen edo ez eskaera egiterakoan jakinaraziko da, eta dagokion baimena ere orduan emango da.

**10.2.-** Urtero programatuko ez diren jarduerak egiteko lokalak lagatzeko eskaerak Udaletxeko Erregistro Orokorrean egin beharko dira, Alkateari zuzendutako idatzi bidez, eta Alkateak berak edo honek eskuordetutako zinegotziak erabakiko ditu. Idazki horretan honako hauek jaso beharko dira:

- Eskatzailearen datuak.
- Lagapenaren iraupena.
- Egingo diren jardueren zerrenda, ondo zehaztuta.
- Pertsona kopurua.
- Lagapenaren helburua.
- Jarduera zein hizkuntzatan egingo den.

**10.3.-** Urtean zehar, ikasturtean zehar edo denboraldi luze batean egiteko jardueretarako lagapenak urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen eskatu beharko dira, planifikazio osoarekin eta egin gura diren jardueren egutegiarekin, Udalak lokalen erabileraren programazio orokorra nolabait alde zuzenetik onartu ahal izateko moduan. Egutegia eta ordutegia eraikina irekitzeko eta ixteko ordutegi eta egutegiarekin bat etorri beharko dira.

**10.4.** Udalak eskaera guztiak aztertu eta banaketa proposamena egingo du erabilgarri dauden lokalen, erabiltzeko eskatutako denboraren eta ondorengo irizpideen arabera:

**10.4.1.-** Jardueren errentagarritasun soziala edota kulturala.

**10.4.2.-** Lehentasuna emango zaie Eskoriatzako elkarteei eta taldeei.

**10.4.3.-** Lehentasuna emango zaie Udalak sustatutako jarduerari.

**10.4.4.-** Ezingo zaie lokalik laga irabazi asmorik duten erakundeei, oso ondo justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

**10.4.5.-** Ezingo da lokalik laga, elkarteren edota talderen batek sustatutako jardueretarako, jarduera horrekin elkarteko edota taldeko kideren batentzako edo hirugarren pertsonentzako irabaziak lortzeko asmoa dagoela egiaztatzen baldin bada. Kasu bakoitzean egingo den balorazioaren kaltetan gabe, egoera hori ematen dela joko da jarduerak elkartearen berezko izaerarekin edo helburuekin zerikusirik ez dituzten jarduerak ezkutatzeko dituztenean, jarduerak behin eta berriz errepikatzen direlako, ekonomikoki irabaziak lortu ditzaketen pertsonak errepikatzen direlako, gutxi batzuei zuzenduta daudelako, edo elkartearen edota taldearen berezko izaerarekin edo helburuekin zerikusirik ez duten jarduerak antolatzen direlako.

**10.4.6.-** Gela edo aretoak lagatzearen ordain ekonomikoa erregelamendu honetan ezarritakoa izango da.

**10.4.7.-** Lagatutako gela edo aretoak erabiltzeko ordutegia eta baldintza teknikoak Udalak ezarritakoak izango dira.

**10.5.-** Behin eskaera jasotakoan, dagokion batzorde informatzailera eramango da, batzordeak eskaerari buruzko proposamena egin dezan.

**10.6.-** Erabakia Alkateak edo berak eskuordetutako zinegotziak hartuko du. Eskaera egin zenetik 3 hilabete igaro ondoren horri buruzko erabakirik berariaz ez bada jakinarazi, administrazio-isiltasunez eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

### **3. TITULUA. DENBORA BATERAKO LAGAPENA**

#### **11. ARTIKULUA. KONTZEPTUA**

Udal lokal baten erabilera denbora baterako lagatzen da aldeek hitzartutako lagapena urte baterako edo gehiagorako denean, doan eta prekarioan. Lagapenak ez du inolako eskubide ekonomikorik edo alokairuzkorik sortzen aldeetakoren baten alde.

#### **12. ARTIKULUA. PROZEDURA, ERABAKIA ETA FORMALIZAZIOA.**

Lagapena egin ahal izateko, interesdunak eskaria egin beharko du alde aurretik. Eskaera formalizatzeko, eskaera aurkeztu beharko da derrigorrez Udaletxeko erregistroan, eta bertan zehaztu erabili gura den espazioa eta horri emango zaion erabilera.

Eskaerarekin batera txosten bat aurkeztu beharko da, eta bertan honako hauek jaso:

- Egingo diren jarduerak eta helburuak, eta urterako ezarritako helburuak.
- Jarduera eremua.
- Jarduera zein ordutegitan egin gura den.

- Jarduera egiteko dituen baliabideak edo jende kopurua.
- Lokalaren erabilera beste elkarteekin edo taldeekin partekatzeko aukera.
- Lokalak izan beharreko ezaugarriak.
- Komenigarritzat jotako eta dagokion organoak eskatutako beste edozein.

Behin eskaera jasotakoan, dagokion batzorde informatzailera eramango da, batzordeak eskaerari buruzko proposamena egin dezan.

Lagapen proposamenak izan beharreko gutxienerako edukia:

- Lagako den ondasuna.
- Erabileraren lagapen modua (partekatua edo berak bakarrik erabiltzeko).
- Lagapenaren iraupena:
- Elkarateak edo taldeak lokala mantentzeko kostuaren zati bat ordaindu behar duen edo ez.
- Erabilpenarekin batera lagako diren ondasun higigarrien inbentarioa.
- Erregelamendu honetan jasotako aurreikuspenak jasoko dituen hitzarmen proposamena.

Erabakia Udalbatzarrak hartuko du. Eskaera egin zenetik 3 hilabete igaro ondoren horri buruzko erabakirik berariaz ez bada jakinarazi, administrazio-isiltasunez eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

Erabilera lagapena eta horretarako baldintzak dokumentu edo hitzarmen batean jasoko dira, Alkateak edo berak eskuordezkaturako zinegotziak eta elkartearen edo taldearen ordezkariak/lehendakariak sinatuko dutena.

Erabileraren lagapen hitzarmena formalizatzeko, elkarteak ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- Elkartearen legezko inskripzioaren ziurtagiria.
- Estatutuen kopia.
- Ordezkararen NANA.

### **13. ARTIKULUA. IRAUPENALDIA**

Lagapena urtebeterako izango da, eta berriztatu ahal izango da elkarteak edo taldeak aurrez horrela eskatuz gero, eta eskari horretan jardueraren jarraipena jakinarazi. Hala ere, lagapenean aldean artean hitzartutako iraupena ere jaso ahal izango da.

Lagapena prekarioan egiten denez, Udalak edozein unetan iraungitzat jo ahal izango du, hilabete aurretik interesdunari horrela jakinaraziz gero, inolako kalte-ordainik ordaindu izan behar gabe.

Hitzarmena deuseztatzeko arrazoia izango da hitzarmeneko betebeharreren bat ez betetzea. Kasu horretan, deuseztapenaren aurretik, Udalak entzunaldia eskainiko dio elkarteari alegazioak egin ahal izateko. Horretarako, 15 eguneko epea izango da.

### **4. TITULUA. ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDU ARAU OROKORRAK**

#### **14. ARTIKULUA. ERABILERA PARTEKATUA**

Lokalean egin gura diren jarduerengatik eta helburuengatik ez bada ikusten lokala lagapen-hartzaileak bakarrik erabiltzeko beharra, lokala lagatzeko edo baimena emateko erabakian erabilera partekatzeko beharra jaso ahal izango da, eta horretarako, erabilera baldintzak, ordutegia eta egunak ezarri.

Lokala erabiltzen duten elkarten edo taldeen benetako beharrei egokitzeko, Udalak erabilera ordutegiak aldatzeko aukera izango du.

#### **15. ARTIKULUA. MANTENTZE-LANAK**

Bakarrik zein partekatuta erabiltzeko lokalak, eta orokorrean, eraikin osoa eta, hala badagokio, altzariak ere, arduraz zaintzeko betebeharra daukate elkarteek, eta beraiek izango dira elkartekideek eta erabiltzaileek edozein motako ekintzak egiteagatik edo ez egiteagatik eragin ditzaketen kalteen erantzule, eta Udalak aurrez horrela baimenduta, beharrezko konponketak berehala eta beraien kontura egin beharko dituzte. Erakunde onarudunari dagokio lagapenaren barne dauden ondasun higigarrien mantentze-lanak eta konponketak.

Erakunde onuradunek ezingo dute beraintzat bakarrik edo partekatzeko lagatako espazioan, ezta, orokorrean, eraikin osoan ere, inolako obrarik edo jarduerarik egin organo eskudunaren berariazko baimenik gabe.

Onuradunek baimena eskatu beharko dute aparatu elektrikoak (berogailuak edo antzekoak) erabiltzeko lokaletan.

Egindako obrak edo jarduerak eraikinaren onurako izango dira, eta horiek egiteagatik ez da inolako kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango. Erakunde onuradunek baimenik gabeko obrak eginez gero, Udalak ondasuna jatorrizko egoerara itzultzeko agindu ahal izango du, eta erakunde horiek ez dute inolako kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango. Agindutakoa beteko ez balute, subsidiarioki egin ahal izango dira leheneratze obrak, eta erakundea behartuta egongo da horien kostua ordaintzera. Leheneratze obrak egitea ezinezkoa balitz ondasunari kalterik egin gabe, sortutako kalteak ordaintzera behartuta egongo da erakunde onuraduna.

#### **16. ARTIKULUA. ERANTZUNKIZUN ZIBILA**

Lagatako lokaletan elkartekideek, taldekideek edo erabiltzailkeek edozein motako ekintzak egiteagatik edo ez egiteagatik, doloz edo arduragabekeriagatik hirugarrenei egindako kalteen erantzule zuzena erakunde onuradun bakoitza izango da. Udalak berak ere hirugarren izaera hori izango du.

#### **17. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.**



Onuradun guztiak behartuta daude erregelamendu honetako xedapen orokorrak betetzera. Halaber, honako hauek betetzera ere behartuta daude:

**17.1.-** Erabilera lagapen erabakiaren titular den erakundeko ordezkaria izendatzera. Ordezkari hori izango da instalazioaren funtzionamendu onaren eta ezarritako baldintzak errespetatzearen arduraduna.

**17.2.-** Lagapen hitzarmenean ezarritako edo hortik kanpo baimendutako ordutegiak errespetatzera.

**17.3.-** Lagatako espazioa erakundeak berezko dituen helburuetarako, hitzarmenean jasotakoetarako edo Udalak baimendutakoetarako erabiltzera, eskaeran aurkeztutako jarduera-programa betez.

**17.4.-** Hirugarrenen merkataritza publizitaterik ez egitera lokalean, Udalak baimendutakoak izan ezik. Publizitatetzat jotzen da zerbitzuak edota ondasun higiezin edo higigarrien salerosketa edo kontratazioa zuzenean edo zeharka laguntzeko edo sustatzeko helburua duen edozein komunikazio mota.

**17.5.-** Lagatako lokalak eta zentroa partekatzen duten beste erakunde edo elkarteak errespetatzera, beraien jarduera normala eragotzi gabe.

**17.6.-** Lokalen edo erabilera komuneko espazioen helburua eta erabilera errespetatzera.

**17.7.-** Erabilpen ordutegian auzokideei eragozpenik ez sortzera eta inguruko lasaitasuna ez haustera, horretarako, indarrean dagoen araudian ezarritako beharrezko neurriak hartuz.

**17.8.-** Lagatako lokalak osasun eta higiene egoera onean zaintzera.

**17.9.-** Giltzak zaintzera eta lokala ixtera azkenengo erabiltzaileak beraien direnean, hitzarmenean bestelakorik adierazten ez bada. Era berean, lagatako lokalen erabilpen egokia zaintzera, eta horretarako, erabiltzaileak zaindu eta kontrolatzera.

**17.10.-** Lagatako lokalaren erabilpena -ez osorik ez zati bat- ez lagatzera hirugarrenei, elkartekide izan ala ez.

**17.11.-** Jendearentzako irekita dauden zentroetan, irekiera ordutegiaren barruan, sarrerarik ez galeraztea inori arrazarengatik, sexuarengatik, erlijioarengatik, iritziarengatik, sexu-joerarengatik edo beste edozein baldintza sozial edo pertsonalengatik.

**17.12.-** Dagokion udal erakundeari sor daitekeen edozein anomalia, gertaera edo arazo jakinaraztera eta, larrialdi kasuetan, horien berri berehala ematera.

**17.13.-** Lagapen erabakia edo baimena iraungi edo indargabetutakoan, lagatako lokala hartutako moduan -erabilerarengatik izandako higadura izan ezik- Udalari itzultzera.

**17.14.-** Erregelamendu hau, indarrean dagoen araudia eta erabilera erabakia edo baimena betetzen dela zaintzeko jarraipena eta ikuskapena egin ahal izatea ahalbidetzera une oro Udalari, lokaletara sartzera erraztuz eta eskatutako informazioa eta dokumentazioa emanez.

**17.15.-** Dagokion udal zerbitzuen ikuskapenarekin, une jakin batean lokala erabiltzeko baimena ematera beste erakunde edo elkarteei beraien proiektu zehatzak garatzeko edo lokala partekatzeko.

**17.16.-** Erregelamendu honetan ezarritako tasa ordeaintzera, edo, hala badagokio, "udal instalazioak erabiltzeagatik tasa arautzen duen ordenantza fiskalean" ezarritakoa.

**17.17.-** Jarduera adin gabekoek eginez gero, beti egon beharko da adineko erantzuleren bat.

**17.18.-** Jarduera mota batzuetan, horiek aseguruia izatea eskatzen badute, aseguruia kontratatzen dira.

**17.19.-** Kalterik izanez gero, lagapenaren arduradunak ordaindu beharko ditu.

**17.20.-** Lagapen-hartzaile bakoitzari emandako espaziotik kanpo ez pilatzea jardueretarako erabiltzeko materialak. Espazio komunak libre egon beharko dira.

## **18. ARTIKULUA. FUNTZIONAMENDU ARAU OROKORRAK**

Lokalak erabiltzeko lagapen guztiak, iraunkorrak edo aldi baterakoak izan, ondorengo arauen menpe egongo dira:

**18.1.-** Lokalak erabiltzeko eskubideak, erabilera arauak onartzea dakar, eta horiek ez betetzeak, lokala erabiltzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

**18.2.-** Udalak jarduera arduradun bat beti egotea eskatuko du honako hauetatik arduratzeko: ordutegia zaintzeko, jarduera egin ondoren lokala jasotzeko, garbitzeko, jarduerak sortutako hondakinak jasotzeko, argiak amatatzeko, txorroak itxi eta abarretarako. Kontuan izan behar da lokala egoera onean gelditu behar dela, beste elkarte batzuk erabiltzeko moduan.

**18.3.-** Lagapena duen talde bakoitzak lokalak erabiltzeko egutegia izango du, eta dagozkion egun eta orduetan bakarrik erabili ahal izango ditu; ezingo dira lokaletara sartu beste talde batzuen ordutegian.

**18.4.-** Lokalean egin beharreko jarduera guztietan jarduerarako egokiak diren materialak erabili beharko dira, eta ezingo dira aldatu lokaleko ondasun higiezinak eta higigarriak.

**18.5.-** Udalak lokalaren erabilera lagatzea baliogabe dezake honako arrazoiengatik: erabilera txarrarengatik, baimendutako jarduera inolako arrazoirik gabe aldatzeagatik, istiluak sortu edo portaera txarra izateagatik, erregelamenduko arauak ez betetzeagatik, eta orokorrean, erregelamendu honetan ezarritako kasu guztiengatik.

**18.6.-** Udalak askatasun osoa izango du lagatutako lokalera sartzeko eta bertako giltzak izango ditu beti.

**18.7.-** Udalak ez ditu zuzentzen eta ez die onespenerik ematen ere lagatutako lokaletan egin

beharreko jardueri. Elkarrekin ez dute inolako menpekotasun loturarik Udalarekin, eta Udalak ez du bere gain hartuko, ez zuzenean ez subsidiarioki, lokal barruan izan daitezkeen kalte material, pertsonal edo moralak.

**18.8.-** Berriaz debekatzen dira ondorengo jarduerak:

**18.8.1.-** Ezarritako ordutegitik kanpo lokalean egotea.

**18.8.2.-** Indarrean dagoen segurtasun araudia betetzen ez duen edozein jarduera egitea.

**18.8.3.-** Segurtasun arrazoiengatik, material arriskutsuak (produktu sukoiak eta abar) erabiltzea edo gordetzea eskatzen duen edozein jarduera.

**18.8.4.-** Alkoholdun edariak gordetzea, saltzea edo kontsumitzea.

**18.8.5.-** Lokala osorik edo zati batean erabiltzea eragozten duten aldi baterako egiturak edo egitura finkoak jartzea lokalean, eta baita lokalaren azpiegitura betirako edo aldi baterako aldatuko dutenak ere.

**18.8.6.-** Adingabekoen kasuan, gai psikotropikoak hartzea, erretzea eta alkoholdun edariak lokalera sartzea.

**18.8.7.-** Sarrera debekatuko zaie alkoholaren edo beste droga batzuen menpe egotearen itxura duten pertsonen.

**18.8.8.-** Lokaletan ezingo da jarri tabakoa, alkoholdun edariak edo beste edozein motako drogak kontsumitzera bultzatzen duen publizitaterik.

## **5. TITULUA. ZIGOR-ARAUAK**

### **19. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEAK**

Arau-hausteak izango dira erregelamendu honetan jasotako arauen aurka lokalen lagapen-hartzaileek egindako jarduera guztiak. Arau-hausteak honela sailkatuko dira:

**19.1.- Arau-hauste arinak:** Erregelamendu honetan larritzat edo oso larritzat jotzen ez diren guztiak.

**19.2.- Arau-hauste larriak:**

**19.2.1.-** Erabilera okerrarengatik kalteak sortu edo apurketak egitea eraikinean edota lokaleko edo horri erantsitako lokaletako altzarietan.

**19.2.2.-** Lokal barruan jendea mespretxatu edo iraintzea.

**19.2.3.-** Irabaziak lortzeko asmoz jarduerak egiteko debekuari buruz erregelamendu honetan ezarritakoa ez betetzea.

**19..2.4.-** Gutxienez hiru arau-hauste arin egitea.

**19.3.- Arau-hauste oso larriak:** Arau-haustea egiterakoan pertsonen askatasunari, edo beraien osotasun fisiko eta moralari eraso egiten zaionean, eta baita gutxienez bi arau-hauste larria egitea ere.

## **20. ARTIKULUA. ZIGORRAK**

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-haustek egiten dituzten pertsona edota taldeei, dagokion espedientea bideratu eta gero, ondorengo zigorrak ezarriko zaizkie:

**20.1.- Arau-hauste arinak:** Bostehun (500,00) euro arteko isuna eta lokala hiru hilabetera arte erabiltzea galeraztea.

**20.2.- Arau-hauste larriak:** Bostehun euro eta zentimo batetik (500,01) mila eta bostehun euro (1.500,00) arteko isuna eta lokala erabiltzea galeraztea hiru hilabete eta egun batetik bi urtera arte.

**20.3.- Arau-hauste oso larriak:** Mila eta bostehun euro eta zentimo batetik (1.500,01) hiru mila euro (3.000,00) arteko isuna eta lokala erabiltzea galeraztea bi urte eta egun batetik hasita betira arte.

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Erregelamendu hau aplikatzerakoan edo bertan arautu gabeko alderdi zehatzei buruz sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu Kultura batzorde informatzailearen diktamena eta egoki iritzitako txosten tekniko eta juridikoak jaso ondoren. Alkatearen erabakiek administrazio bidea amaituko dute, eta beraien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legean aurreikusitakoaren arabera, eta nahi izanez gero, interesdunek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan aurreikusitako berraztertze errekurtsua jartzearen kaltetan gabe.

## **AZKEN XEDAPENA**

Erregelamendu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta 15 lanegun igaro ondoren sartuko da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarrean izango da erregelamendua aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

## "REGLAMENTO MUNICIPAL REGULADOR DE LA CESIÓN Y USO DE LOS LOCALES MUNICIPALES".

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Gestionar el patrimonio de los entes locales bajo principios de eficacia y rentabilidad, es una responsabilidad recogida en la legislación sobre bienes de las entidades locales. Es tarea de los Ayuntamientos, como administración pública más cercana a la ciudadanía, poner a disposición medios y bienes de su pertenencia para, de forma coordinada, coadyuvar a la creación de un tejido asociativo cuyos fines pretendan el desarrollo de los ciudadanos en sus aspectos solidarios, sociales, culturales, deportivos o de cualquier otra índole de interés general.

Por los motivos aludidos, el Ayuntamiento de Eskoriatza ha venido cediendo el uso de locales de propiedad municipal tanto a agrupaciones sin ánimo de lucro, como a personas físicas y jurídicas para la realización de acciones dirigidas a desarrollar sus funciones y conseguir sus objetivos y desarrollo de actividades de interés social.

Sin embargo, la carencia de regulación en el uso de estos locales puede causar algún problema de índole organizativo, por lo que se ve necesaria la elaboración y aprobación de un Reglamento que regule el uso de los locales municipales.

La presente norma tiene, por tanto, una doble finalidad. En primer lugar, regular el procedimiento para que el acceso al uso de locales municipales se produzca en igualdad de condiciones, primando el mayor beneficio que a la sociedad pueda reportar el destino asignado a los mismos; y en segundo lugar, regular el uso y funcionamiento de dichos locales.

Para establecer esta regulación se aprueba el presente reglamento, en aplicación de la potestad reglamentaria y de autoorganización reconocida a las Entidades Locales en el artículo 4.1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

### TÍTULO 1. DISPOSICIONES GENERALES

#### **ARTÍCULO 1. OBJETO**

Es objeto de este reglamento la regulación del procedimiento necesario para la cesión de uso de locales municipales propiedad de este Ayuntamiento, así como la regulación del uso que de los mismos hayan de hacer los cesionarios.

Quedan excluidos de este Reglamento la cesión de uso de locales a favor de otras Administraciones Públicas y de sus entidades u organismos dependientes.

#### **ARTÍCULO 2. OBJETIVOS DE LA CESIÓN**

Las cesiones y usos regulados en este reglamento deben estar orientadas a la consecución de los siguientes objetivos:

- Propiciar el uso compartido de lugares comunitarios y de encuentro entre los vecinos, asociaciones, colectivos y demás elementos integrantes de la vida del municipio de Eskoriatza.
- Facilitar la puesta en marcha de programas y actividades de carácter cultural, informativo, formativo, educativo y lúdico que se organicen por las diferentes asociaciones y/o grupos.
- Optimizar los recursos municipales disponibles para estas cesiones. La utilización de los locales de forma compartida por el Ayuntamiento y los diferentes colectivos, supondrá una optimización de los recursos municipales disponibles.

